

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

3547

AGINDUA, 2011ko uztailaren 5koa, Herrizaingoko sailburuarena, emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiteko laguntzen deialdia egiten duena.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna ezinbestekoa da emakumeen aurkako indarkeria, giza eskubideen urratze larrienetako bat, erabat ezabatzeko. Arazo konplexua da eta gizartetik guztiz ezabatzeko nahitaezkoa da koordinaturik jardutea, batetik, indarkeria-egoerak, haien kausak eta indarkeria darabiltenen jarreraren aurkako aurreneurriak ikertzen eta, bestetik, profesionalak trebatzen eta laguntza- eta harrera-zerbitzuak biktimen beharrianetara egokitzen.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu; bada, dekretu horrek jardun-arlo berria ezarri dio Herrizaingo Sailari, hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzea.

Gauzak horrela, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren bidez sortu zen Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, eta besteak beste, hauek dira horren eginkizunak: prebenitzeko programa integralak eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programak, hainbat organismo eta administrazio publikoren artean, sustatzea eta koordinatzea eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baitan garatutako proiektuak gainbegiratzea, baita horien jarraipena egitea ere.

Deustuko Unibertsitateak eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren arteko lankidetzari jarraituz, hain zuzen emakumeen kontrako indarkeria errotik kentzen lagunduko duten neurriak bilatzen hasi dena, prestakuntza-esperientziaren bidez, laguntzen deialdi publikoa egin dute 2011-2012 ikasturterako, emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofizialaren edizio hau finantzatzeko.

Aurreko guztiaren ondorioz, 4/2005 Legearen 53. artikulua ezartzen duena betetzeko asmoz, hain zuzen: euskal herri-administrazioek sustatu behar dute herri-administrazio horietako langileen prestakuntza, baita erakunde pribatuetako langileen prestakuntza ere, baldin eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen, bai eta biktimak zaintzen eta haiei laguntzen badihardute; eta Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 10. artikuluan izendatutako eginkizunak kontuan hartuz,

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Eremua eta xedea.

Agindu honen xedea da emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate master ofiziala egiteko laguntzen deia egitea, hain zuzen Deustuko Unibertsitatean egingo da 2011-2012 ikasturtean. Aipatu masterra 60 ECTS (Europako kredituak) dituen master ofiziala eta bost modulutan egituratzen da:

I. modulua: Gizarte mailako eta diziplina arteko parte hartzea.

II. modulua: Lanbide-tresna espezifikoak gizarte mailan parte hartzeko.

III. modulua: Genero- eta etxeko indarkerian esku hartzea.

IV. modulua: Kanpoko praktikaldiak.

V. modulua: Masterreko amaierako lana.

2. artikulua.- Diru-baliabideak.

Aurreko artikuluan ezarritako xederako erabiliko diren diru-baliabideak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren aurrekontuetan ondorio horretarako ezarritako aurrekontuko kredituetatik etorriko dira eta, guztira, berrogeita sei mila ehun eta berrogeita hamar (46.150) euro dira.

3. artikulua.- Laguntzak emateko prozedura.

Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da. Horretarako, garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak erkatuko dira 10. artikuluan finkatutako irizpideak aplikatuz, lehentasunaren arabera hurrenkeran jartzeko asmoz, eta puntu gehien lortzen dituzten eskaerei soilik emango zaizkie diru-laguntzak.

4. artikulua.- Pertsona onuradunak.

1.- Gehienez ere hamabost onuradun egongo dira.

2.- Laguntza eskatzeko jarraian aipatuko diren baldintza orokorrak bete behar dira:

a) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan eduki behar da, gutxienez laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik.

b) Lizentziatu edo diplomatu titulu akademikoa eduki behar da.

3.- Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko trebakuntza jaso duten pertsonak ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, baldin eta trebakuntza hori beste herri-administrazio batek finantzatu badu eta 150 ordukoa edo gehiagokoa izan bada.

5. artikulua.- Diru-laguntzak izapidetzea eta ebaztea.

1.- Interesa duten pertsonak prozedura honen izapide guztiak baliabide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta gauzatu ditzakete.

2.- Hauek arautzen dute izapidetze elektronikoa: administrazioaren prozeduretan baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa nola erabili behar diren arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua; Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua; eta PLATEA- E -Administrazioentzako Plataforma Teknologikoa ezartzen duen dokumentua onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena.

3.- Laguntza horiek izapidetzen erabiliko diren baliabide elektronikoen jarraibideak argitaratuko dira Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaritzaren helbide elektronikoan.

4.- Eskabide egitean bide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzeak ez du esan nahi prozeduraren ondorengo izapideetan ere erabili behar direnik eta, halaber, interesdunak adierazi ahal izango du ez duela jakinarazpena bide telematikoen bidez egitea nahi; kasu horretan, organo eskudunari horren berri eman beharko dio eta jakinarazpenak non egin adierazi,

administrazio-prozeduretan bide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzeko abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren 4.4 eta 21.2 artikuluetan xedatutakorekin bat.

5.- Jakinarazpena izapidetze presentzial eta telematikoa egitea:

1) Izapidetze presentzialaren kasuan, pertsona baimenduak Correoseko hartu-agiria sinatzen duenean jakinarazpena burututzat joko da, eta pertsona horrek jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko da kasu bakoitzean ezarritako epea.

2) Izapidetze telematikoa kasuan, aldiz, interesdunak berau jaso izana elektronikoki sinatzen duenean jakinarazpena burututzat joko da, administrazio-prozeduretan bide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzeko abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren 4.4 eta 21.2 artikuluetan xedatutakorekin bat. 23. artikuluan aipatzen den helbide elektronikoa, jakinarazpena interesdunari helarazi eta hamar egun natural igarota, interesdunak ez baditu edukiak atzitu, jakinarazpena ezetsi duela ulertuko da. Izapidetzea egintzat joko da eta prozeduran aurrera jarraituko, non eta ez den egiaztatzen, ofizioz edo hartzaileak eskatuta, ezin izan direla edukiak atzitu arrazoi tekniko edo materialak direla medio.

6. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

1.- Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik.

2.- Eskabideak -eredua agindu honen eranskinean eta jarraian adieraziko den helbide elektronikoa dago- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari helaraziko zaizkio eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Erregistro Orokorrean (Donostia kalea, Vitoria-Gasteiz) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako edozein egoitzatan aurkeztu beharko dira.

Era berean, eskabideak aurkez daitezke baliabide elektronikoen bidez. Eskabide-orria eskuragarri dago helbide elektronikoa honetan:

http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg0004/eu/contenidos/ayuda_subvencion/avvg_ayudas_master_deusto/eu_masterud/avvg_ayudas_master_deusto.html

3.- Eskatzaileek eskabidea, erantsitako egiaztapenekin batera, aurkez dezakete aukeratuko duten hizkuntza ofizialean. Halaber, eskabideko jardueretan eta prozedura osoan zehar, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, hala ezartzen baitute Euskararen erabilera arautzeko den azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek.

7. artikulua.- Eskakizunak egiaztatzea.

1.- Laguntza-eskabidearekin batera -curriculum europarra II. eranskinean argitaratzen da- agiri hauek ere aurkeztuko dira:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzea (NAN, pasaporte edo parekoa).

b) Laguntza eskatzen den prestakuntza-arloan (aukera-berdintasuna, emakumeen kontrako indarkeria, etab.) eskatzaileak duen esperientzia egiaztatzea.

c) Egoitza datuak egiaztatzea (laguntza eskatu aurretik eskatzailea urtebete gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egon dela frogatzen duen ziurtagiria).

d) «Hirugarren interesdunaren datuen alta». Eredua hemen:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html

e) Eskatzaileak genero-indarkeriako esku-hartzearen arloan prestakuntza jasotzeko zer nolako interesa duen azaltzea (azalpen-memoria).

f) Deustuko Unibertsitatean onartua izana egiaztatzea (hori izan ezean, onarpen-eskabidearen kopia).

2.- Eskakizunak egiaztatzeko modua helbide elektroniko honetan zehaztuko da:

http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg0004/eu/contenidos/ayuda_subvencion/avvg_ayudas_master_deusto/eu_masterud/avvg_ayudas_master_deusto.html

3.- Eskabideek aukera hau ere izango dute: eskatzaileak baimena emango du berariaz diru-laguntza kudeatzen duen organoak agirien zati bat lor edo egiazta dezan eta horrek ez du galaraziko Administrazio Publikoarenak diren egiaztapen, kontrol eta ikuskapen ahalmenak gauzatzea.

4.- Jarraian zehazten diren laguntza hauen eskatzailearen betebeharrak erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egin ahal izango dira -eskabidean dago eredu-:

Eskabidearen berri ematea eta, hala badagokio, beste administrazio, erakunde publiko edo erakunde pribaturen batek xede bera duten diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eman izana jakinaraztea.

Eskatzaileak egiaztatzea ez zaiola ezarri laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzeko administrazio-zehapenik edo zigor penalik eta ez duela horretarako gaitasunik gabe uzten duen inolako lege-debekurik.

Eskubide hau izateko, indarrean den legedian ezarritako eskakizunak betetzea, laguntza jaso ahal izateko eskakizunak egiaztatu ahal izatea eta laguntzaz baliatzen den artean eskakizunok beteko direla hitz ematea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren aldeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz, eskatzaileak ez duela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik adieraziko da.

Erantzukizunpeko adierazpenarekin batera doan edo sartzen den edozein datu, adierazpen edo agiriren oinarritzko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez aipatzeak prozeduran jarraitzeko ezintasuna zehaztuko du horren berri dagoen momentutik, eta horrek ez die kalterik eragingo gerta litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administrazioakoei.

Halaber, gisa horretako egoera dagoela adierazten duen Administrazio Publikoaren ebazpenaren bidez, interesdunak itzuli beharra duela adierazi ahal izango da, eta denbora jakin batean, ezin izango duela helburu bererako prozedura hasteko eskatu; guzti hau aplikatzekoak diren arauetan xedatutakoaren arabera.

5.- Beharrezkoa dela uste izanez gero, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak informazio gehiago eskatu ahal izango du.

6.- Laguntza ukatuz gero, aurkeztutako agiriak berreskuratu egin ahal izango dira, eta horretarako hilabeteko epea egongo da Herrizaingoko sailburuaren agindua argitaratzen denetik, baldin eta ebazpen horren aurkako errekurtsorik jartzen ez bada. Izan ere, errekurtsua jartzen bada, epea errekurtsua ezesteko ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatuko da.

8. artikulua.- Aurkeztutako eskabideetako akatsen zuzenketa.

Diru-laguntzetarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko du, eta hamar laneguneko epea emango du horretarako, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita. Horrez gain, eskatzaileari ohartaraziko zaio eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela; ezesteko, aurretiaz, ebazpena emango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki.

9. artikulua.- Hautaketa Batzordea.

Aurkezten diren eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, Hautaketa Batzordea eratuko da eta kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

Mahaikideak:

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

- Idazkaria: Herrizaingo Saileko letratu bat.

10. artikulua.- Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko, jarraian adieraziko diren irizpideak hartuko ditu kontuan Hautaketa Batzordeak, bakoitzari emandako puntuen arabera:

a) Unibertsitateko prestakuntza egokia izatea Masterraren edukietarako. 20 puntu gehienez.

b) Curriculumaz kanpoko prestakuntza osagarria. 20 puntu gehienez.

c) Arlo akademikoan egindako lanak: irakaskuntzan laguntzea, ikerlanak, etab. 10 puntu gehienez.

d) Boluntario zein profesional gisa egindako lanak. 20 puntu gehienez.

e) Hizkuntzak. 10 puntu gehienez.

f) Masterra egiteko arrazoi eta zio pertsonalak (eskuz idatzitako gutunean). 20 puntu gehienez.

11. artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa gutxienez matrikulak duen balioaren % 50 izango da.

4. artikuluan aurreikusten diren hamabost onuradun baino gutxiago badaude, dotazio-soberakina onuradunen artean banatuko da modu proportzionalan, baina ezin izango da matrikularen % 100 baino gehiago jaso.

12. artikulua.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publiko edo pribatu guztiek helburu berarekin ematen dituztenekin, gain-finantzaketarik gertatu ezean. Gain-finantzaketarik izanez gero, diru-laguntza gehieneko mugaraino murriztuko da.

13. artikulua.- Ebazpena.

1.- Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu eskaerak, diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera; ondoren, bere proposamena bidaliko dio Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari. Horrek ebazpen adierazia emango du. Ebazpen horrek amaiera emango dio lehiaketari eta diru-laguntza nori eman eta nori ukatu zaion adieraziko du. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei. Orobat, emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jendeak horren berri izan dezan.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez du azkenduko administrazio bidea eta beraren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

3.- Agindu honen itzalpean aurkezten diren eskaerak ebazteko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriaren Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe horretan interesdunari ez bazaio ebazpenik jakinarazi, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko da, hala ezartzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikulua.

4.- Ebazpenean, pertsona onuradunen zerrenda jasotzeaz gain, ordezkoen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkoengana jo ahal izateko.

14. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun diren pertsonen betebeharrak hauek izango dituzte, betiere:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horrelakoetan, diru-laguntza eman zaiela jakinarazten dien idazkia jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek ukoa berariaz adierazten ez badute, diru-laguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza xede jakin bat betetzeko ematen denez, xede horretarako erabili behar da, eta prest egon behar da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak diruz lagunduko diren jarduerak noiznahi begizta ditzan onartzeko.

c) Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan dihardutela deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen duten informazioa eman behar diete.

15. artikulua.- Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza zatika ordainduko da, bi alditan: lehenik, emandako diru-laguntzaren ehuneko laurogei, 14.a) artikuluan aurreikusitako epea igarota, berariaz uko egiten ez bada, eta, ondotik, gainontzeko % 20a, ikasturtearen lehen seihilekoan onuradunak zer nolako asistentzia eta aprobetxamendua izan duen azaltzeko Deustuko Unibertsitatearen jarraipen-txostena helarazi eta gero ordainduko da.

16. artikulua.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.- Diru-laguntza emateko baldintzaren bat aldatzen bada, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatuz gero eta, betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada, edo bestelako entitate publikoren edo pribaturen batek, aldi berean, laguntzarik edo diru-laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da.

2.- Aurreko artikuluan aipatutako agiriak edo, bestela, artikulua honetako aurreko paragrafoan aipatutakoa, jaso ondoren, eta agiriak aztertu eta ebaluatu ondoren, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez, emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatuko du; horrez gainera, hala badagokio, diru-laguntzen zenbatekoak egokituko ditu; beraren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

17. artikulua.- Baldintzak ez betetzea.

Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dela jakinez gero, eta, batez ere, Masterreko klaseetara arrazoirik eman gabe joan ezean edo hura bertan behera utziz gero, jasotako zenbatekoa eta hari dagozkion legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Gainera, bidezko ekintzak abiarazi ahal izango dira.

18. artikulua.- Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak eta/edo betebeharrak betetzen ez direla eta, emandako diru-laguntza ezeztatu eta, hala badagokio, diru-laguntza itzultzeko jarraituko den prozedura abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio. Dekretu horrek hau ezartzen du:

a) Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak interesdunari jakinaraziko dizkio prozeduraren hasiera eta hori oinarritzeko arrazoiak eta 15 egun balioduneko epea emango dio, interesdunak egokituz jotzen dituen alegazioak egiteko.

b) Alegazioak jaso edo alegaziorik egin gabe epea pasa ondoren, prozedura amaitutzat joko da, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez. Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea eta beraren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Herrizaingoko sailburuari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ebazpenean adierazten bada ez direla baldintzak bete, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat joko da eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta ezarri behar zaizkion legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko aginduko da. Dirua bi hileko epea amaitu baino lehen itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko epealditzat joko da.

c) Borondatezko aldiak itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin ahal izateko, aplikatzeko den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

d) Ezar daitezkeen arauak ez betetzeagatik, emandako diru-laguntzak itzultzeko prozedura betetzeko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, artikulua honetan arautzen denari jarraikiz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta beraren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Herrizaingo sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik.

Bigarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneari sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 5a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALAREN EDIZIO BAT EGITEKO LAGUNTZAK ERANSKINA

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

BESTE FINANTZIAZIO ITURRIAK

Beste finantziazio iturriak erabili dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zeintzu?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

Beste laguntzak eskatu dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein organismoari?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALAREN EDIZIO BAT EGITEKO LAGUNTZAK ESKABIDEA

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA *

1

Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

■ TITULARRA

Izena / Erakundearen izendapena *

Dokumentu Mota *

Lehen Abizena *

Bigarren Abizena *

Zenbakia * -

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua * Gizona Emakumea

LETRA

■ ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia -

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua Gizona Emakumea

LETRA

JAKINARAZPENA *

2

Elektronikoa Posta bidez

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) *

Herrialdea *

Helbidea *

Zk ____ Pisua ____ Letra ____

PK *

Udalerrria *

Lurraldea *

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASO NAHI DIREN HIZKUNTZA * Euskera Gaztelania**ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**

- Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)
- Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoea (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Herri administrazioak ordaindutako 150 ordu edo gehiagoko Gizonen eta Emakumeen berdintasun formazioa ez dut jaso.

Ez nago zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, ere.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditut.

ADOSTASUNAK**Nortasun datuak**

- Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak **Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Baliabideak** izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** da fitxategi horren titularra, eta laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzara** jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Eskatzaileak bere izenean jokatzek badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzek badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzek duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

Pertsona juridikoak, beti jokatzek dute ordezkari gisa, beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzek duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

2

JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELEKTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak www.euskadi.net/nirekudeaketak -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzek ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...)

3

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea erabaki badu, admisnirazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzek du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzek dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartek bereiziz.

EUROPAR CURRICULUM MODELOA

INFORMAZIO PERTSONALA

1

Lehen Abizena:	_____	Bigarren Abizena:	_____
Izena:	_____		
Helbidea (Kalea/Plaza):	_____	Zk:	_____
		Pisua:	_____
Herria:	_____	PK:	<input type="text"/>
Telefonoa:	<input type="text"/>	Mugikorra:	<input type="text"/>
		Faxa:	<input type="text"/>
E-mail:	_____		
Nazionalitatea:	_____	Jaiotza-data:	_____
Sexua:	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

LORTU NAHI DEN LANPOSTUA / FAMILIA PROFESIONALA

Lortu nahi den lanpostua:	_____
---------------------------	-------

LAN-ESPERIENTZIA

Berrietik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lanbidea edo betetako kargua: _____

Eginkizunak eta ardura nagusienak:

Enpresa edo enplegu-emailearen izena: _____

Enpresa edo enplegu-emailearen helbidea: _____

Enpresa edo sektore-mota: _____

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Berrietik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lortutako titulua: _____

Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak: _____

Ikastetxearen izena eta mota: _____

Nazioarteko sailkapenarekin edo sailpen nazionalarekin bat egiten duen maila: _____

GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK**2****Hizkuntzak**

Zure ama-hizkuntza adierazi (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, bakoitza adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza(k) - Autoebaluazioa:

Hizkuntza	Ulermena		Ahozkoa		Idatzia
	Ahozko ulermena	Idatzizko ulermena	Ahozko elkarreragina	Ahozko gaitasuna	

Gaitasunak eta jendetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta antolatzeko trebetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun teknikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun informatikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun artistikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Beste gaitasun eta trebetasun batzuk

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gida-baimena:

- | | | | | | |
|-----------------------------|--------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|----------------------------|------------------------------|
| <input type="checkbox"/> AM | <input type="checkbox"/> B | <input type="checkbox"/> C1 | <input type="checkbox"/> D1 | <input type="checkbox"/> E | <input type="checkbox"/> BTP |
| <input type="checkbox"/> A1 | <input type="checkbox"/> B + E | <input type="checkbox"/> C1 + E | <input type="checkbox"/> D1 + E | | |
| <input type="checkbox"/> A2 | | <input type="checkbox"/> C | <input type="checkbox"/> D | | |
| <input type="checkbox"/> A | | <input type="checkbox"/> C + E | <input type="checkbox"/> D + E | | |

BESTE INFORMAZIO BATZUK

Ahal honetan garrantzia eduki dezakeen beste edozein informazioa adierazi, adibidez jende-kontaktua, erreferentziak, argiltapenak, etab.

ESKATZAILEAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOAN ESKU HARTZEKO PRESTAKUNTZA JASOTZEKO ZER NOLAKO INTERESA DUEN AZALTZEKO MEMORIA

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

DOKUMENTUARI BURUZKO AZALPENAK

1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculum nola betetzeko informazioa jasotzeko, helbide honetara jo:

<http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp>;

2 GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK

Autoebaluazio taula sei maila-eskalako hizkuntzetarako erreferentzia den Europako esparru komunean oinarritzen da, Europako Kontseiluak egina.

Taulak honako 3 mailak ditu:

- oinarrizko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- erabiltzaile independentea (B1 eta B2 mailak);
- erabiltzaile gaitua (C1 eta C2 mailak).

Atzerriko hizkuntzan zure maila autoebaluatzeko, hurrengo deskribapenak irakurri eta zure curriculumean agertzen diren laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idazmena) maila egokia adierazi (adibidez Bikain - C2).

Ahozko ulermena	A1	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz).
	B1	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiez diharduten telebista-edo irrati-saioteko ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista- programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta komunikabideetako ere, baita jatorrizko hitzunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Idatzizko ulermena	A1	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntan idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulak espezializatuak edo literatura-lanak.

Ahozko elkarreragina	A1	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzen, birformulatzen edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarriketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburak egiteko.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaiaren batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarriketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak,...).
	B2	Gai naiz jatorrizko hitz batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarriketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritzia azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarteedo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarriketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziak konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Ahozko adierazpena	A1	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idatzizko adierazpena	A1	Gai naiz postal laburak eta errazak idazteko, esaterako zorientzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen dieran garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zailkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jarioz idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulua konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorraren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.